

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure lokala Leioan kokatuta dago, zeazki EHU-ren kanpusan kokatuta dago, horrela ikasten ari diren pertsonak eta unibertsitateko langileak edota irakasleak gure kafetegiaren baliabideetaz gozatu dezakete. Gainera unibertsitatean bertan agindutako proiektuak egin ahalko dituzte hor edota deskantsu bat hartzera eta zeozer jatera joan daitezke.

Unibertsitatean bertan dagoenez, ikasle guztiak hurbil edukiko dute gure kafetegia, gainera leku eroso bat izango da ikasteko, liburutegi arrunta guztietaz desberdinduz.



[Google Maps](#)



baliabideak

Gu Zara, Miren eta June gara eta bakoitza zerbaiten espezializatuko da.

Hasteko, Miren lokalaren diseinuaz arduratuko da. Mirenek barne diseinu master bat dauka eta horrez gain, bi urte daramatza horretan lan egiten enpresa txiki batean.



Bestalde, Zara finantza arloaz arduratuko da. Hau da, bera izango da diru sarrera eta kostuetaz arduratzen dena eta errentagarritasuna bilatzen sailatuko da. Zarak enpresa txiki baten kostuetaz arduratu da hiru urtez beraz esperientzia dauka arlo horretan, ekonomilari ikaragarria da.

Giza



Azkenik, June sukaldean egongo da sukaldari ezinhobea delako. Junek lau urte daramatza jatetxe batean lan egiten eta jatetxe horrek lau izar ditu. Txikidanik gustuko izan du sukaldatzen eta sukaldaritza ikasi zuen. Bestalde lokaleko bestelako lanak egiteko langileak kontratuko ditugu beharren arabera, estimazioen arabera, tabernan lan egiteko, bost zerbitzari kontratatuko ditugu eta lokala garbitzeko, beste hiru.



• **Finantza-baliabideak**

Gure proiektua aurrera eramateko, hasierako diru kantitate zehatz bat behar izango dugu. Gure hasierako inbertsioa 200.000 eurokoa izango da. Baliabide finantzario hauek beharrezkoak ditugu, bilatzen dugun lokalaren diseinua eta erosotasuna eskaintzeko.
